PRENTSA OHARRA
NOTA DE PRENSA

# Topoaren atari berria eraikitzeak  Anoeta inguruan eraginak izango ditu

*ETS-k datorren astean hasiko dituen atri berria eraikitzeko obrek eragina izango dute estadioaren inguruko trafikoan*

*Euskal Trenbide Sareak* datorren astean hasiko ditu Anoetako topo geltokia eraberritzeko lanak. Bertan, lurrazaleko bigarren sarrera bat eraikiko da, nasak luzatuko dira eta Aita Donostia plazako bideak berrantolatuko dira.

Obra konplexu honek 30 hilabete inguruko iraupena izango du, eta datozen egunetan hasiko da Aita Donostia plazako biribilgunea inguratzen duen bide sarea eraberritzen. Horren ondorioz, ibilgailuen zirkulazio bideak murriztuko dituen antolamendu berri bati ekingo zaio, bidegorria berrantolatuko da bizikletentzako bide berriak sortuz eta biribilgunearen inguruan oinezkoentzako espazioa irabaziko da.

Bide antolaketa berriari esker, trafikorako bideak murriztuko dira eta oinezkoentzako guneak handituko dira Topoaren geltokiaren sarbide berriaren inguruan. Hortaz, oinezkoei emango zaie lehentasuna, baita bizikletei eta garraio publikoari ere, gune atseginago eta osasuntsuagoa sortuz.

**Eraginak**

Geltokiaren sarrera zein bidearen antolaketa berria egiteko lanek 30 hilabeteko epea izango dute, gutxi gorabehera. Lehenik eta behin, lanak Topoaren geltokiaren sarrera berria egiteko eremuan hasiko dira, Ospitaleen igoeraren hasieran, eta eraginak dituzten eremuak lanak egin ahala egokitzen joango dira.

Beraz, hurrengo astean Atano III frontoiaren inguruan obrak irauten duen bitartean behar diren bulegoak etabar instalatuko dira, eta obra guztia amaitu arte bertan egongo dira.

Ondoren, **lehen fasea (2 astetako iraupena) eta bigarren fasea (4 astetako iraupena)** hasiko dira. Bi fase hauetan Begiristain Doktorearen pasealekuan egingo den biribilgunea egin ahal izateko eremua prestatzen joango dira.

Lehen faseetan ezingo da Xanti taberna ondoko Anoetako irteeratik Amararuntz irten. Ibilgailu guztiek eskuinera jo beharko dute, Begiristain Doktorearen pasealekura (Ospitaleetarako norabidean). Gainera, Ospitaleetako jaitsieraren amaieran bidea estutuko da eta bide bakarra egongo da.

Lanek ere eragina izango dute Begiristain Doktorea eta Zorroaga pasealekuak lotzen dituen oinezkoentzako eremuan, baina uneoro oinezkoen igarotzea bermatuko da

Lehen faseak egin ondoren, **hirugarren (6 aste)** eta **laugarren (4aste)** faseak egingo dira, eta bertan, bidearen antolaketan aldaketa garrantzitsuak egongo dira. Bi fase hauetan Begiristain Doktorearen biribilgune berria sortuko da, eta behin biribilgune hau amaituta gainerako lanak egin ahal izango dira.

Bein Biribilgunea amaituta eta eremuak berreskuratuta, Aita Donostia plaza berria garatzen hasiko da eta bideen berrantolaketa erabat egingo da.

**Tamaina handiko obra izanik, epeak eta beharrak egokitzen joango dira lanak egiten diren bitartean, eta Udalak gainerako faseei buruzko informazioa ematen joango da. Dena dela, oinezkoen igarotzea uneoro bermatuko da.**

Donostia, 2023ko uztailak 21

# Afecciones en el entorno de Anoeta por la construcción del nuevo vestíbulo del Topo

*Las obras de construcción del nuevo vestíbulo, que ETS comenzará la próxima semana, tendrán afecciones al tráfico en la zona contigua al estadio*

*Euskal Trenbide Sarea* comenzará la próxima semana las obras para la reforma integral de la estación de topo de Anoeta, que incluye la construcción de un segundo vestíbulo en superficie, la prolongación de los andenes y la reordenación viaria de la plaza Aita Donostia.

Esta compleja obra, que tendrá una duración aproximada de 30 meses, comenzará en los próximos días con la reforma de la red viaria que rodea la rotonda de la plaza Aita Donostia, dando paso a una nueva ordenación que reducirá carriles de tráfico rodado, reordenará el bidegorri creando nuevos tramos ciclistas y ganará espacio peatonal en el entorno de la rotonda.

La nueva ordenación viaria permitirá además que la ocupación en superficie que supone el nuevo acceso a la estación de Topo se compense restando espacio al tráfico rodado para preservar la superficie peatonal, dando prioridad a los viandantes y a los ciclistas y al transporte público, generando un espacio más amable y saludable para la ciudadanía.

**Afecciones en superficie**

Para poder ejecutar tanto la creación del nuevo vestíbulo como la nueva ordenación viaria, la obra se desarrollará en aproximadamente 30 meses, y comenzará por la recuperación del espacio en superficie necesario para la instalación de la nueva estación de Topo, en el tramo inicial de la subida a Hospitales, y las zonas afectadas por la misma se irán adaptando a medida que avanzan los trabajos.

Así, la próxima semana se procederá a instalación del campamento de obra en los alrededores del aparcamiento frente al Atano III, y permanecerá hasta finalizar el conjunto total de la obra.

Posteriormente comenzarán la **1ª (2 semanas) y 2ª (4 semanas) fase** de obra, en las cuales se preparará la superficie para las fases siguientes, que permitirán la construcción de la nueva rotonda en el paseo Doctor Begiristain.

En estas primeras fases, no se podrá realizar la salida de Anoeta por la zona del bar Xanti sentido Amara, sino que se deberá girar obligatoriamente hacia la derecha

(dirección Hospitales) por el paseo Doctor Begiristain. Además, se estrechará el tramo final de la bajada de Hospitales a un solo carril.

El tramo peatonal que atraviesa el paseo Doctor Begiristain y el paseo de Zorroaga también se verán afectado por los trabajos, pero se garantizará en todo momento el paso de peatones.

Tras las fases iniciales se llevarán a cabo la **3ª (6 semanas)** y **4ª (4 semanas) fase,** que generarán los cambios más importantes en la ordenación viaria de la zona. En estas fases, los trabajos consistirán en la creación de la nueva rotonda del paseo Doctor Begiristain, que una vez finalizada permitirá el avance del resto de trabajos.

Una vez terminada la construcción de la rotonda y la recuperación de espacios, se iniciará el desarrollo de la nueva plaza Aita Donostia y se ejecutará completamente la reordenación viaria.

**Al tratarse de una obra de gran envergadura, los plazos y necesidades se irán adaptando según avancen los trabajos, por lo que se informará oportunamente de las siguientes fases. A pesar de ello, se garantizará en todo momento el paso peatonal para cruzar la obra.**

Donostia / San Sebastián, 21 de julio de 2023